

Euskal AEko osasunaren gastu arrunta % 6,0 hazi zen 2023an, eta 8.554 milioira iritsi zen

Osasunean egindako gastu arrunta BPGren % 9,2 izan zen, eta biztanle bakoitzeko 3.882 euro gastatu zen

Euskal AEko osasun gastu arrunta 8.554 milioi eurokoa izan zen 2023an, BPGren % 9,2, Eustatek landutako datuen arabera. Datu horiek Osasun Kontuen Sisteman argitaratutako ELGaren metodologiaren arabera kalkulatzeko dira (System of Health Accounts-SHA 2011). Biztanle bakoitzeko zenbatekoa 3.882 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 5,4 handiagoa.

Osasun-gastuak osasunerako ondasunen eta zerbitzuen azken kontsumoa neurtzen du, hau da, edozein agente finantzatzailek egindako gastu arrunta. Gastu horren finantzaketan sartzen dira Herri Administrazio guztiak, Nahitaezko osasun-aseguruak, Borondatezko osasun-aseguruak eta Etxeetako ordainketa zuzena.

2020tik, balio absolutuko gastu arruntaren gutzitzea % 5,0ko urteko batez besteko tasa metatua hazi da; eta azken urtean % 6,0koa, 2022an 8.068 milioikoa izatetik 2023an 8.554 milioikoa izatera igaro baita.

Osasun-gastu arrunta, BPGren ehunekoan, ehuneko 0,1 puntu jaitsi da azken urtean. Era berean, biztanleko gastua % 5,4 hazi da, 2022ko 3.683 euroetatik 2023ko 3.882 euroetara.

Euskal AEko Osasunaren Kontuaren datu eta adierazle nagusiak. 2020-2023

	2020	2021	2022	2023(p)	Aldakuntza-tasa (%)	
					2023(p)/2022	2023(p)/2020 urteko batez besteko metatua
GASTU ARRUNTA GUZTIRA (mila eurotan)	7.389.796	7.820.836	8.068.071	8.554.213	6,0	5,0
Herri Administrazioak/ Derrigorrezko aseguruak	5.179.651	5.499.591	5.631.709	5.944.151	5,5	4,7
Borondatezko sistemak/Ebeken ordainketa zuzena	2.210.145	2.321.245	2.436.362	2.610.062	7,1	5,7
Biztanleko gastua (euro)	3.364	3.571	3.683	3.882	5,4	4,9
Gastu arrunta/BPG (%)	:	9,9	9,3	9,2	-0,1 (*)	:
HHAen osasun-gastua/HHAen gutzitza (%)	16,0	16,4	15,8	:	:	:

(p)behin-behinekoa

(*)aldea portzentajeazko puntutan

Data 2024ko Azaroaren 27a

Iturria: Eustat. Osasunaren Kontua

Finantzaketa-iturriei dagokienez, 2023an 8.554 milioi euroko gastu arrunta izan zen, eta, horietatik, 5.944 milioi euro Herri Administrazio guztiei eta Nahitaezko ordainketarako aseguruei dagozkie, hau da, 2022an baino % 5,5 gehiago. Gainerako 2.610 milioi euroak Borondatezko ordainketarako osasun-aseguruei eta Etxeetako ordainketa zuzenari dagozkie, aurreko urtearen aldean % 7,1 hazi baitziren.

Euskal AEko Osasun Kontuaren datuen analisi xehatuak, **funtzioen arabera** gastuari buruzkoak, erakusten du Sendatzeko osasun-arretak jarraitzen duela pisurik handienekoa izaten (% 56,9) eta bere zenbatekoa % 6,5 hazi zela 2023an, 4.867 milioi eurora iritsiz. Garrantzian bigarren funtzioa Produktu medikoei dagokie (Produktu farmazeutikoak, Material sanitarioa eta Material terapeutikoa), gastu arruntaren % 16,8 izan baitzen eta urteko % 7,2ko hazkundera izan baitzuen. Hirugarrenik, Egonaldi luzeko osasun-laguntzako gastua (mendeko pertsonentzako osasun-arretara bideratutako gastua barne) gastu arruntaren % 14,7 izan zen, eta hazkunde neurritsuagoa izan zuen, % 3,5 aurreko urtearen aldean. Ondoren, Osasun zerbitzu lagungarrietan egindako gastua dago (analisi klinikoetan, irudi bidezko diagnostikoan eta garraio sanitarioan egindako gastua barne), 2023an 429 milioi eurora iritsi zena eta gastu arruntaren % 5,0 izan zena.

Gainerako funtzioek, gastuan garrantzi erlatibo txikiagoa izan arren, hazkunde garrantzitsuak izan zituzten 2023an: Errehabilitazioko osasun-laguntza % 12,1 hazi zen, 180 milioi eurora iritsiz; Prebentzio-zerbitzuei dagokien zenbatekoa % 7,8 hazi zen eta 109 milioi eurora iritsi zen; eta Osasun-sistemaren gobernantza eta administrazioa funtzioaren zenbatekoa % 5,9 igo zen, 270 milioi eurora iritsi arte.

Euskal AEko osasun gastua funtzioen arabera (milaka euro). 2020-2023

	2020	2021	2022	2023(p)	osasun-gastu osoaren %		Urteko aldakuntza-tasa (%)	
					2020	2023(p)	2022/2021	2023(p)/2022
FUNTZIOA								
-HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	4.137.931	4.458.548	4.569.464	4.867.175	56,0	56,9	2,5	6,5
-HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	135.836	149.462	160.383	179.797	1,8	2,1	7,3	12,1
-HC.3 Iraupen luzeko osasun-asistentzia	1.160.132	1.180.863	1.215.976	1.258.217	15,7	14,7	3,0	3,5
-HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	390.283	428.532	421.644	429.235	5,3	5,0	-1,6	1,8
-HC.5 Produktu medikoak (funtzioen-ei esleitura izan barik)	1.253.000	1.267.307	1.345.029	1.441.375	17,0	16,8	6,1	7,2
-HC.6 Aurrea hartzeko zerbitzuak	97.972	95.703	100.711	108.543	1,3	1,3	5,2	7,8
-HC.7 Gobernantza eta osasun-sistemaren eta osasun-finantzaketaren administrazioa	214.642	240.421	254.864	269.871	2,9	3,2	6,0	5,9
OSASUNEKO GASTUA, GUZTIRA	7.389.796	7.820.836	8.068.071	8.554.213	100,0	100,0	3,2	6,0

(p) behin-behinekoa

Data 2024ko Azaroaren 27a


Iturria: Eustat. Osasunaren Kontua

Hornitzaileen arabera gastuaren egitura aurreko aldien antzekoa da; gastu gehiena ospitaleetan egin zen (% 41,5) eta % 6,3ko hazkundera izan zuen 2023an. Bigarren lekuan osasun-laguntza anbulatorioaren hornitzaileak daude, gastuaren % 22,4 izan baitziren, eta % 6,9 igo ziren 2022aren aldean. Hirugarrenik, Txikizkariak eta produktu medikoen hornitzaileak gastu arruntaren % 16,9 izan ziren eta % 7,2ko hazkundera izan zuten 2023an. Egonaldi luzeko egoitza-establezimenduetako gastua gastu arruntaren % 10,2ra iritsi zen.

Gainerako gastua (% 9,0) honako hauei dagokie: Zerbitzu osagarrien hornitzaileei (garraio sanitarioa, laborategiak), Prebentzio-zerbitzuen hornitzaileei, Osasun-sistemaren administrazioari eta Gainerako ekonomiari (etxeko osasun-arretaren hornitzaile gisa sartzen dira etxeko unitateak).

≡ Euskal AEko osasun gastu arrunta, hornitzaileen arabera. 2023

Milaka euro eta ehunekoa



Iturria: Eustat. Osasunaren Kontua

Nazioarteko konparazioari dagokionez, Eurostatek eta ELGAk EB27 herrialdeetarako argitaratutako azken datuak 2022koak dira. **Konparaziorako** adierazle nagusiak honako hauek dira: **gastua BPGren ehunekoan**, **per capita gastua EAPn (euro)** eta **administrazio publikoen ahaleginaren adierazlea**.

Administrazio publikoen ahaleginaren adierazlea, hau da, Euskal AEko administrazio publikoen guztizko gastuarekiko osasun gastu publikoa % **15,8** izan zen 2022an, EB27ko (% 14,7) eta Espainiako (% 15,2) batez bestekoaren gainetik.

Euskal AEko **BPGren ehunekoaren gaineko osasun gastua** % **9,3** izan zen 2022an, EB27ko batez bestekoaren azpitik (% 10,4).

Gastuaren adierazleak herrialdearen arabera. 2022

	BPGren gaineko Herri administrazioen gastua	Osasun gastu arruntaren gaineko Herri administrazioen gastua	Herri Administrazioen gastu guztia gaineko Herri Administrazioen Osasun gastua	BPGren gaineko Osasun gastu arrunta	Gastu arrunta biztanleko (PPC, euro)
27EBko batez bestekoa	8,4	81,3	14,7	10,4	3.685
Alemania	10,9	86,7	20,5	12,6	5.317
Austria	8,7	77,6	16,3	11,2	4.751
Belgika	8,1	75,1	15,2	10,8	4.339
Bulgaria	4,9	63,5	11,8	7,7	1.786
Zipre	7,4	80,9	18,3	9,1	2.854
Kroazia	6,2	85,3	13,7	7,3	1.858
Danimarka	8,0	84,6	17,8	9,5	4.154
Eslovakia	6,2	79,9	14,6	7,7	1.947
Eslovenia	7,1	74,0	15,0	9,6	2.927
Espainia	7,2	74,0	15,2	9,7	2.814
Estonia	5,3	74,8	13,2	7,0	2.014
Finlandia	7,7	79,6	14,8	9,7	3.645
Frantzia	10,1	84,7	15,9	11,9	4.302
Grezia	5,3	62,0	9,9	8,5	1.986
Hungaria	4,9	72,6	9,9	6,7	1.867
Irlanda	4,7	77,4	22,3	6,1	4.136
Italia	6,7	74,4	11,8	9,0	2.945
Letonia	4,9	64,9	12,1	7,6	1.928
Lituania	4,8	66,5	13,0	7,2	2.318
Luxemburgo	4,8	86,1	11,0	5,6	4.316
Malta	6,6	67,0	16,2	9,8	3.427
Herbehereak	8,5	84,2	15,4	10,1	4.531
Polonia	4,7	73,7	10,7	6,4	1.960
Portugal	6,5	62,5	14,8	10,5	2.823
Txekiar Errepublikak	7,5	85,0	16,7	8,8	2.908
Errumania	4,5	77,8	11,2	5,7	1.627
Suedia	9,0	86,0	18,8	10,5	4.363
Euskal AE	6,5	69,8	15,8	9,3	3.775


EAP: Eros Ahalmenaren Parekotasuna

Data 2024ko Azaroaren 27a

Iturria: Eustat, Osasunaren Kontua eta OCDE Health Statistics 2024, Eurostat

EAPn (euro) biztanleko osasunean egindako gastua hobe da, **3.775**era iritsi baitzen Euskal AEn, hau da, EB27ko (3.685) eta Espainiako (2.814) eta Finlandiako (3.645) batez bestekoaren gainetik. Taularen mutur gorenean Alemania dago, 5.317ekin. Azken adierazle hori EB27ko batez bestekoaren gainetik mantendu da eskuragarri dagoen urte guztietan.

Biztanleko osasun gastu osoa Erosteko ahalmenaren parekotasunean (euro EAP)



Iturria: Eustat. Osasunaren kontua eta OECD, Eurostat. Health Statistics

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62